



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

2019KO EKAINAREN 6KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, kontziliazio eta erantzunkidetasun politika berriak zehaztuko dituen lau urterako plan berezitu bat Legebiltzarrera ekartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00539]

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketaren bozketan berdinketa izanda, hurrengo osoko bilkuran erabakiko da.

ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 6 DE JUNIO DE 2019

1. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre la remisión al Parlamento de un plan específico para cuatro años que defina nuevas políticas de conciliación y corresponsabilidad. [11\11\02\01\00539]

Producido empate en la votación de la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES, queda pendiente para una próxima sesión plenaria.





2. Mozioa, José Ramón Becerra Carollo Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako garapen sozioekonomikoari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.
[11\11\03\00\00133]

EA-NV, EP eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

18/2019

- "1. Eusko Legebiltzarraren iritziz, Urdaibaiko Biosfera Erreserbak bere balio ekologikoen, paisaiakoen eta kulturalen kontserbazioa bultzatu behar du, eskualdeko garapen ekonomiko eta sozial jasangarriarekin batera.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitarau berriaren (JSEGE) prestaketaren barruan, lan-mahai bat sortu dezala, non eskualdeko eragile ekonomiko eta sozial guztiek parte hartuko duten, halako moldez non, Erreserbaren Lankidetzaren Kontseiluarekin koordinatua, horien gogoetek eta ekarpenek planaren edukia hobetzeko balioko duten.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitarau berriaren (JSEGE) prestaketaren barruan, prozesu partizipatibo bat bultzatu dezala, non biztanleek ere aukera izango duten eskualdean garapen sozioekonomiko jasangarri eta orekatua lortzeko bide onenei buruz eztabaidatzeko.
4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatu dezala instituzio guztien arteko elkarrizketa iraunkorra, Urdaibaiko babesteko eta bertako garapen jasangarriko beharrezko diren neurriak finantzatu eta exekutatzeko konpromiso partekatua bat erraztuko duena".

2. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. José Ramón Becerra Carollo, parlamentario del grupo Elkarrekin Podemos, relativa al desarrollo socioeconómico en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.
[11\11\03\00\00133]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EP y SV-ES.

18/2019

- "1. El Parlamento Vasco considera que la Reserva de la Biosfera de Urdaibai necesita impulsar la conservación de sus valores ecológicos, paisajísticos y culturales, a la vez que el desarrollo económico y social sostenible de la comarca.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el marco de la elaboración del nuevo Programa de Armonización y Desarrollo de las Actividades Socioeconómicas (PADAS), cree una mesa de trabajo en la que tomen parte todos los agentes económicos y sociales de la comarca, con el fin de que, de manera coordinada con el Consejo de Cooperación de la Reserva, sus reflexiones y aportaciones sirvan para mejorar el contenido del plan.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el marco de la elaboración del nuevo Programa de Armonización y Desarrollo de las Actividades Socioeconómicas (PADAS), impulse un proceso participativo en el que la ciudadanía también tenga la oportunidad de debatir acerca de las mejores vías para alcanzar un desarrollo socioeconómico sostenible y equilibrado en la comarca.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a impulsar un diálogo interinstitucional estable que posibilite un compromiso compartido en la financiación y ejecución de las medidas necesarias para la protección y el desarrollo sostenible de Urdaibai".





3. Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako legez besteko proposamena, minbizia duten Euskadiko paziente pediatrikoentzako arretari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00568]

EA-NV, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

55/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio bultza ditzala Gurutzetako eta Donostiako unibertsitate-ospitaleetan hobekuntza-jarduera berriak arreta onkologiko pediatrikorako, zeinek jasoko baititu, besteak beste, azpiegiturak egokitzea eta behar diren giza baliabideak ezartzea adin txikikoei eta beren senideei arreta integrala bermatze aldera.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio azter dezala minbizia pairatzen duten eta Gurutzetako unibertsitate-ospitalera joaten diren Arabako haurren egoera, lehenasuna emateko gaur egun, joan-etorri batzuk ekidite aldera, Arabako osasun-instalazioetan odol-analisiak egiteko posibilitateari buruz egiten ari diren azterketei".

3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, sobre atención a los pacientes pediátricos con cáncer de Euskadi. [11\11\02\01\00568]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, SV-ES y PV-ETP.

55/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Salud del Gobierno Vasco a impulsar nuevas actuaciones de mejora en los hospitales universitarios de referencia de Cruces y Donostia para la atención oncológica pediátrica que comprendan, entre otros, la adecuación de las infraestructuras, así como la dotación de los recursos humanos necesarios para garantizar una atención integral a las y los menores y sus familias.
2. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Salud del Gobierno Vasco a estudiar la situación de los niños y niñas del territorio alavés que padecen cáncer y se desplazan al hospital universitario de Cruces, con el objetivo de dar prioridad a los estudios que actualmente se están desarrollando para la posible realización de los análisis de sangre en instalaciones sanitarias alavesas, con el fin de evitar algunos desplazamientos".





4. EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, Euskaltelen egoera larriaren aurrean hartu beharreko neurriei buruz. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00579]

EA-NV, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

56/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio erabil ditzala eskura dituen baliabide guztiak enpresa hau ahalik eta errotuen egon dadin euskal lurraldean, enpleguarekiko, inbertsioarekiko, ikerketarekiko, aurrerapen teknologikoarekiko eta Euskadiren garapenarekiko konpromisoa bermatze aldera.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio euts diezaiela eta hobetu ditzala Euskadiren lehiatzeko gaitasunak, Euskadik enpresa traktoreak kokatzeko eta errotzeko lurralde optimo gisa duen erakargarritasuna optimizatze aldera.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari, Kutxabanki eta bankuaren jabe diren hiru banku-fundazioei eskatzen die, helburu izanik Euskadin ekoizpen-eredu sendo, osasuntsu eta jasangarria izatea, garatu dezatela inbertsio-politika esanguratsu eta jasangarri bat enpresa estrategikoetan, bermatzeko lurraldeari atxikita daudela eta haien erabakitzeko ahalmena Euskadin geratzen dela.
4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, 2019ko hirugarren hiruhilekoan zehar, sor dezala legealdiaren hasieran iragarri zuen inbertsio-funts publiko-pribatua".

4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, relativa a medidas a tomar ante la grave situación de Euskaltel. [11\11\02\01\00579]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, SV-ES y PV-ETP.

56/2019

- "1. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a que utilice todos los recursos a su alcance para que Euskaltel tenga el máximo nivel de arraigo en el territorio vasco, en aras de garantizar el compromiso con el empleo, la inversión, la investigación, el avance tecnológico y el desarrollo de Euskadi.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a mantener y mejorar las capacidades competitivas de Euskadi para lograr optimizar el atractivo de Euskadi como territorio óptimo para el asentamiento y arraigo de empresas tractoras.
3. El Parlamento insta al Gobierno Vasco, a Kutxabank y a las tres fundaciones bancarias propietarias del banco, teniendo como objetivo un modelo productivo sólido, saludable y sostenible en el País Vasco, a desarrollar una política de inversiones significativa y sostenible en las empresas estratégicas, para garantizar su vinculación al territorio y asegurar la permanencia de su capacidad de decisión en el País Vasco.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a crear, a lo largo del tercer trimestre de 2019, el fondo de inversión público-privado que anunció al comienzo de la legislatura".





5. EH Bildu eta Elkarrekin Podemos talde parlamentarioek egindako legez besteko proposamena, enpresek atzerrian eragiten dituzten inpaktuak ebaluatzeko zentro bat sortzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00406]

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

57/2019

"Kontuan izanik dagoeneko Eusko Jaurlaritzak onartutako dokumentuak, zeintzuek lan-ildo finko eta denboran iraunkorra ezartzen baituten giza eskubideen alorrean, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio osatu dezala dagoeneko ezarritako esparru estrategikoa. Horretarako, urtebeteko epean jarduera plan bat egin dezala enpresari eta giza eskubideei buruz, erantzungo diena alor horretan dauden nazioarteko betebeharrei, kontuan izanda Nazio Batuek definitutako hiru zutoinak: babestu, errespetatu, erreparatu.

Plan horrek neurri zehatzak jaso beharko ditu ondorengo puntu hauen inguruan:

- Eragile instituzional eta sozial anitzen arteko topaketarako eta elkarriketarako guneak.
- Sentsibilizazio- eta formakuntza-ekintzak eta -tresnak eragile publiko eta pribatuentzat eta euskal gizartearentzat.
- Jarraipenerako, aholkularitzarako eta kontu-ematerako neurriak".

5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por los grupos parlamentarios EH Bildu y Elkarrekin Podemos, relativa a la creación de un centro de evaluación de los impactos de las empresas en el exterior. [11\11\02\01\00406]

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

57/2019

"Teniendo en cuenta los documentos ya aprobados por el Gobierno Vasco que marcan una línea de trabajo sólida y sostenida en el tiempo en materia de derechos humanos, el Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que complete el marco estratégico ya establecido elaborando en el plazo de un año un plan de actuación sobre empresa y derechos humanos que dé respuesta a las obligaciones internacionales en la materia tomando en consideración los tres pilares definidos por Naciones Unidas: proteger, respetar, reparar.

Dicho plan deberá incorporar medidas concretas relativas a:

- Espacios de encuentro y diálogo de diferentes actores institucionales y sociales.
- Acciones y herramientas de sensibilización y formación para los diferentes agentes públicos y privados y para la sociedad vasca.
- Medidas de seguimiento, asesoramiento y rendición de cuentas".





6. Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako legez besteko proposamena, erabilera publikoko mendietan kokatuta dauden eta Itelazpi SAK kudeatzen dituen telekomunikazio-zentroak arautzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00588]

EA-NV, EH Bildu, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

58/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Itelazpi SA sozietate publikoari eskatzen die bultza dezatela, Arabako Foru Aldundiarekin batera, bere eskumenen esparruan, Arabako erabilera publikoko mendietan kokatuta dauden eta Itelazpi SAK kudeatzen dituen telekomunikazio-zentroen erabilera arautzeko prozedura, dagokion foru-aginduaren bidez dagozkion kontraprestazioak ezartzeko.
2. Eusko Legebiltzarrak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio 2019ko irailaren 30a baino lehen informazioa eta aholkularitza eman diezaiela, bai prozedurari bai zentroen ezaugarri eta parametroei dagokienez, gaur egun beren erabilera publikoko mendietan telekomunikazio-zentroen erabilera arautu gabe duten Arabako toki-erakundeei, dagokion foru-aginduaren bidez dagozkion kontraprestazioak ezartzeko.
3. Eusko Legebiltzarrak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio foru-agindu bidez izapidetu ditzala, urtebeteko epean, Arabako erabilera publikoko mendietan kokatuta dauden telekomunikazio-zentroen prozedura administratiboak, erregulatu gabe dauden eta prozedura parte batek eskatuta hasten den kasuetan.
4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bidal diezaiela legez besteko proposamen hau Itelazpi SA sozietate publikoari, Arabako Foru Aldundiari eta Itelazpi SAK kudeatutako telekomunikazio-zentroak dituzten Arabako toki-erakundeei".

6. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, referente a la regularización de los centros de telecomunicaciones gestionados por Itelazpi SA y ubicados en los montes de utilidad pública. [11\11\02\01\00588]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, SV-ES y PV-ETP.

58/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y a la sociedad pública Itelazpi SA a que impulsen, junto con la Diputación Foral de Álava, en el ámbito de sus competencias, el procedimiento de regularización del uso de los centros de telecomunicaciones gestionados por Itelazpi SA ubicados en los montes de utilidad pública de Araba, con el fin de fijar las contraprestaciones correspondientes mediante la oportuna orden foral.
2. El Parlamento Vasco insta a la Diputación Foral de Álava a que, antes del 30 de septiembre de 2019, informe y asesore, tanto de aspectos procedimentales como de las características y parámetros de los centros, a las entidades locales alavesas que actualmente no tienen regularizado el uso de los centros de telecomunicaciones en sus montes de utilidad pública, con el fin de fijar las contraprestaciones correspondientes mediante la oportuna orden foral.
3. El Parlamento Vasco insta a la Diputación Foral de Álava a que en el plazo de 1 año tramite mediante orden foral los procedimientos administrativos de los centros de telecomunicaciones ubicados en montes de utilidad pública de Araba que tengan pendiente su regularización y en los que se inicie el procedimiento a instancia de parte.
4. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a que remita esta proposición no de ley a la sociedad pública Itelazpi SA, a la Diputación Foral de Álava y a las entidades locales alavesas que tienen centros de telecomunicaciones gestionados por Itelazpi SA".





7. (berria) Adierazpen instituzionala, Ambazoniako gatazkari buruz. [11\11\05\00\00065]

Onetsia.

"Giza eskubideen urraketak eta populazio anglofonoen –gehienak Herrialdearen hegomendebaldean daude eta bereziki Kamerun ingelesko protektoratua izandakoan– aurkako indarkeria basati eta indiskriminatuak eraginda, 2016ko urritik Estatu krisia pairatzen du Kamerunek.

Azkeneko krisia, 2017ko urritik gogortutakoa (Paul Biya Gobernuko presidentek indarkeriaz erreprimitu zituen gizarte zibileko erakundeek deitutako manifestazio herrikoiak, eskualdeak pairatzen duen diskriminazioaren kontrakoak), gatazka luzatu baten gogortzearen kontestuan ematen da. Gatazka horrek aurrez aurre jarri ditu Gobernu eta Ambazoniako eskualde anglofono marginalizatua.

Jaundeko Gobernu exekutiboak, populazio anglofonoaren protestak menperatu nahian, segurtasun- eta defentsa-indarrak aktibatu ditu modu basatian populazio zibilaren aurka egiteko, biktima errugabe asko utzi dituen lur erreko politika jarraituz. Bestalde, eskualde horretako talde bortitzek, protestak baliatuz, krimen larriak egin dituzte ehundaka biktima utziz: herritarrak, funtzionarioak eta poliziak.

Era berean, *"Centro para los Derechos Humanos y la Democracia en África"* gobernu kanpoko izen handiko erakundeak, 2019ko martxora arte, erretako 176 herri zenbatu ditu, ehundaka hildako utziaz, eta beste milaka eskualdeko basoetara desplazatuta, hala nola ihes egindako populazioak, Nigerian errefuxiatutakoak, premiazko laguntza humanitaria behar dutenak.

Giza eskubideen jazarpen indiskriminatuko egoera larri horren aurrean, Eusko Legebiltzarrak:

- 1) Salatu eta gaitzetsi egiten du eskubide funtsezkoen etengabeko urraketa hori, indarkeria krudela eta desproporzionatua erabiliz populazio zibil defentsa gabekoaren aurkakoa, krisi humanitario larria eragin duena, baina, baita ere, pasatako ikasle eta irakasleen bahitzeak edo funtzionarioen eta polizien erailketak.

7. (nuevo) Declaración institucional sobre el conflicto en Ambazonia. [11\11\05\00\00065]

Aprobada.

"Desde octubre de 2016, Camerún sufre una crisis de Estado provocada por la vulneración de derechos humanos y por la práctica de una violencia brutal e indiscriminada, ejercida contra la población anglófona situada fundamentalmente en el suroeste del país y específicamente en lo que fue el protectorado del Camerún inglés.

La última crisis, agudizada desde octubre de 2017, cuando el Gobierno del presidente Paul Biya reprimió violentamente manifestaciones populares convocadas por organizaciones de la sociedad civil en contra de la discriminación que padece la región, se inscribe en el recrudecimiento del prolongado conflicto que enfrenta al Gobierno y a la marginalizada región anglófona de Ambazonia.

El Gobierno ejecutivo de Yaundé, en su objetivo de subyugar las protestas de la población anglófona, ha activado sus fuerzas de seguridad y defensa para actuar de forma bárbara contra la población civil, en una política de tierra quemada que ha causado numerosas víctimas inocentes. Por otro lado, grupos violentos de esa región, amparándose en las protestas, han causado graves crímenes con centenares de víctimas de la población y de funcionarios y policías.

En esta línea, la prestigiosa organización no gubernamental *"Centro para los Derechos Humanos y la Democracia en África"* ha contabilizado, hasta marzo de 2019, 176 pueblos quemados y calcinados, causando centenares de muertos y miles de desplazados a los bosques de la región, así como poblaciones escapadas y refugiadas en Nigeria, necesitadas de urgente ayuda humanitaria.

Ante esta grave situación de violación indiscriminada de los derechos humanos, el Parlamento Vasco:

- 1) Denuncia y reprueba esta constante vulneración de los derechos más fundamentales mediante el ejercicio de una violencia cruel y desproporcionada contra la indefensa población civil que ha provocado una grave crisis humanitaria, pero también los secuestros pasados de estudiantes y profesores o el asesinato de funcionarios y





- | | |
|---|--|
| 2) Masakre horien biktimei eta senideei aitortza, elkartasuna eta babesa adierazten dizkie, tragedia humanitario horren ondorioz pairatzen diharduten sufrimendu gogorra arintze aldera. | policías. |
| 3) Beharrezko deritzo aldeen arteko elkarrizketa eta negoziazioa abiatzea, nazioarteak babestuta, helburua izanik bake justu eta iraunkorra lortzea, zuzenbidearekin eta nazioarteko printzipioekin bat etorriko dena, hala nola giza eskubideak errespetatzea. | 2) Expresa su reconocimiento, solidaridad y apoyo a las víctimas y a los allegados de estas masacres, en orden a paliar el terrible sufrimiento que padecen a consecuencia de esta tragedia humanitaria. |
| 4) Hori dela eta, elkarrizketa horri ekiteko, Ambazoniako talde armatuak eta Kamerungo Gobernuari su-etena erregutzen die, eta berehala utz ditzatela liskarrak. | 3) Estima necesario habilitar un diálogo y una negociación entre las partes, bajo auspicios internacionales, con el objetivo de alcanzar una paz justa y duradera, de conformidad con el derecho y principios internacionales, así como el respeto de los derechos humanos. |
| 5) Jaundeko Gobernuak eta oposizioko liderretako batzuek egindako elkarrizketarako borondatezko azken adierazpenen aurrean, bi aldeak animatzen ditu bide horri jarrai diezaioten. | 4) En ese sentido, y para habilitar ese diálogo, exhorta a los grupos armados de Ambazonia y al Gobierno de Camerún a un alto el fuego y cese inmediato de hostilidades. |
| 6) Euskal erakundeei, espainiarrei, europarrei, Afrikar Batasunari eta Nazio Batuen Erakundeari dei egiten die giza eskubideen urraketa horietaz jabetu daitezen, krisi humanitarioen ondorioei auzardiaz aurre egin diezaieten, eta inplikatu daitezen eskualde honek pairatzen duen odolustea geldiaraziko duen konponbide negoziatu, bideragarri eta etengabe inplikatu daitezen". | 5) Ante las últimas declaraciones de voluntad de diálogo por parte del Gobierno de Yaundé y de algunos líderes de la oposición, anima a ambas partes a proseguir por ese camino. |
| | 6) Llama a las instituciones vascas, españolas, europeas, de la Unión Africana y a la Organización de Naciones Unidas, para que tomen conciencia de estas violaciones de los derechos humanos, afronten con determinación los efectos de las crisis humanitarias y se impliquen en una solución negociada, viable y permanente que frene el baño de sangre que asola a esta región". |

